

Ukraina mehatxu militar sinesgarrien gurpil zoroan

2015eko otsail hondar honetan Ukrainak galdutzat jo ditzake bai Krimea eta bai Donbasseko eskualde zabal bat. 12 hilabete lehenago Euromaidan zen albiste Kieven. 5.500 hildako geroago, Ukrainako gatazkan korapilatu da AEBen, Errusiaren eta Europaren arteko elkarbizitza. Otsailaren 12an sinatutako itunak apenas piztu du bake itxaropenik.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MINSK-II ITUNA SINATU ARREN, sakonean ba ote da aukerarik une honetan Ukrainako gatazkan diplomaziak bolborari gaina har diezaion? Menturaz beldurra da esperantza bakarra. Europa barruan AEBen eta Errusiaren arteko gerraren garrak hedatzeari zaion izua. Europako zenbait buruzagi nagusi badirudi hasi direla kontutan hartzen gerra ezkutu eta agerikoez asko dakiten jendeen iritziak.

Otsailaren 16an, Minsken 12an hitzartutako su-etena zintzilik zeukanean Debaltseveko guduak, Britainia Handiko MI6 (atzerriako espioitza) zerbitzuko buru nagusi izandako John Sawersek esan zuen: “Mendebaldeak ikasi behar du Vladimir Putinekin bizitzen. Errusiarrak probokatzeak sakonago baizik ez du egingen oraintxe Europak daukan segurtasun krisia”.

King’s Collegen esan zien ikasleei: “Ukrainako krisia dagoeneko ez da Ukrainaz, askoz krisi handiago bilakatu da, larriagoa, Errusiaren eta Mendebaldeko herrialdeen artekoa, Europako balore eta ordenaren ingurukoa. (...) Errusiako agintaritzan aurreikusi dezakegun edozein aldaketa okerragorako izango da. Datozen urteetan Errusiarekiko harremanen kudeaketa izanen da Europaren segurtasuna definitzeko arazo nagusia”.

MI6ko buruzagia ez da Ukraina-koak eragin duen arrisku geopolitikoak ohartarazi duen bakarra. Beste bi oso nabarmen aipatzearen, hautu politikoen mapan bi muturretan bizi diren Noam Chomsky eta Henry Kissinger gutxitan azalduko ziren ados, baina hala ikusi dira Ukrainako gerraren mintzatzean.

Occupy mugimenduko ekintzailea eta aspalditik abokatu ezaguna den Kevin Zeesek bildu ditu Chomskyren eta Kissingerren iritziak *Mint Press News* gunean: “*Chomsky And Kissinger Agree: Avoid Historic Tragedy In Ukraine*” (Chomsky eta Kissinger ados: saihestu behar da tragedia historikoa Ukrainan).

Kissinger AEBen atzerri politikan *factotum* bat izan da, Sobiet Batasunarekiko Gerra Hotzaren azken urteak kudeatu zituen, Vietnamgo gerra, haurrek ere badakite munduko hamaika bazterretan estatu kolpe militarrek sustatu zituela amerkarren gogokoak ez ziren agintari hautatuak lurperatzeko.

Ukrainan AEBek eskua nabarmenago sartzeaz esan du Kissingerrek: “Arriskuari ezin diogu ez-ikusia egin. Gerra Hotza berpiztea tragedia historikoa litzateke. Gatazka saihestu baldin badaiteke, moraltasunean eta segurtasunean oinarrituta, ahalegindu behar da hura saihesten”.

Max Avdeev argazkilaria Slavyanski brigada errusiazalearen urratsean –miliziano boluntarioak Donbassekoak dira, ofizialak errusiarrak, dio Avdeev-ek– ibili da Logvinove inguruan, Debaltsevetik hurbil. Handik zerbitzatu dio gerrako argazki saila BuzzFeed News agentziari. “*Horrific Images Capture The Sheer Brutality Of War In Ukraine*” (Irudi beldurgarriak Ukrainako gerraren brutalitatea biltzen dutenak) bildumatik argazki odoltsuenak bazterturik, lerroon ondorako hautatuak ageri du herrixka bateko emakumea etxeko ataritik begira ke artean errenkan doazen tankeei. Azken hamabi hilabeteotan bai Novorossiaren aldeko miliziek eta bai Vladimir Putinek erakutsi dute soluzio militarretan behar den bezain urrun iristeko prest daudela, mehatxu militar sinesgarria erabiltzeko alegia. Krimea Errusiak bereganaturik, Donsk eta Luhansk departamenduetako eremu bat *de facto* Ukrainatik berezita dago.

Noam Chomsky Kissingerren antipodetan ibili da beti, AEBen inperialismoarekiko kritiko kupidagabe, Kissinger gerrako kriminala dela esan izan du. Baina Errusiako agintariekiko oso kritiko ere izan da beti, anarkista zorrotza denez. Ukrainakoaz kezkatuta agertu da: “Errusiako autokrazia [Vladimir Putinen diktadura] ez da inondik ere errurik gabea, baina lehen ere hondamenditik oso hurbil ibili ginen moduan berriro jolasean ari gara katastrofearekin. (...) Orain, Ukrainan krisia leherturik, eta Errusiarekiko mugez ondoan ‘misil bidezko defentsa sistema’ deitzen diotena ezarririk, egoera arrisku handikoa da”.

Si vis pacem, para bellum?

Asko ote dira gerra hotzaren eta are larriagoa litzatekeen gerra beroaren arriskuez ohartarazi dutenak? Zenbat indar daukate? Dakiguna da Ukrainako gatazka bide baketsuetatik aterata 5.500 heriotzarainoko gerran eta potentzia handien gero eta esku hartze handiagan murgildu bada izan dela interes handiek elikatu dutelako hautu hori.

AEBen Ukrainako demokrazia Errusian Vladimir Putinek ezarrita daukan diktaduratik babestu dadila oihukatzen ari direnak asko dira, eta



behar den presio maila, eta horrekin ez du gerra urruntzen, hurbilago-tzen baizik”. Mehatxu sinesgarria beharrezkoa dela, alegia.

Orain, *Spiegeleko* kazetariak diotenez, askok uste dute Merkel ahul ageri dela bere jokabidean. Batik bat AEBetako senatariak kritikatu diote Putinekin konponbidea bilatu nahia, aurpegiatu diote jokatzan ari dela beste batzuek 1938an Municheko itunarekin Txekoslovakia Hitlerri entregatu ziotenean bezala. Bigunkeriaz jokatu ez dela gerra urrutiratzen, hurbilago-tzen baizik.

Merkelek, ordea, Minsk-IIko negoziaketetan Barack Obamari eskatu zion pazientzia Kieveko gobernuari armak bidali aurretik. “Behin eta berriro ahalegindu behar dugu, horretarako gara politikari” esan omen zion.

“Merkelek beldur dio –diote Berlingo iturri ofizialetatik edan duten *Spiegeleko*ek– AEB eta Errusia diren potentzia nuklearrek Ukrainan ordezkari bidezko gerra pizteari”. *Proxy war* deitzen zaio horri: bi handiek elkarri gerra egiten diote baina aurretik morroiak bidalita, batzuek xaxatuz Kieveko gobernuua, besteek Donbassen Novorossia eraiki nahi dutenak.

Lerroot irakurlearen begietara iristean artean indarrean egongo ote da Minks-II, Debaltsebekeko guduak itunaren lehen puntua zalantzan jarrita? Donbassen jokatzan den xake aldiaren alde guztiak dirudite maniobratzeko tarte gutxiarekin eta probokazioetan aurrera jarraitzera derrigortuta. Europar guztiok nozituko ditugu ondorioak. ■

gatazkak behar dituzten lobby indartsuek sustatuta gainera. Ordainetan, Errusian ez dute etsaien aurrean ahul azaldu nahi. Nazioarteko prentsan arakatu, bai OTAN-en aldekoetan baina baita Putinen aldekoetan ere aurkitu daitezke datu kezkarriak. Esaterako, Moskuko hedabide ofizialetan nola banalizatu den arma nuklear taktikoak erabiltzeko mehatxua, Ukrainakoa are gehiago nahaspilatzeokotan eraso nuklear *prebentiboa* aldarrikatu. Broma gutxi kontuokin.

Der Spiegel astekari alemanak berrikitan plazaratu duen analisi baten arabera, Angela Merkel bera ere duela gutxi sobietarren kontrako politiketan *oilar* agertzen zen. *Spiegeleko* zenbait kazetarik elkarla-

nean idatzitako “*The War Next Door: Can Merkel’s Diplomacy Save Europe?*” (Gerra atarian: Merkelek salbatu ote dezake Europa) xehetasun argigarriak erakutsi dute nola hurbildu den Merkel orain Ukrainarako aldarrikatzen duen *real politik* delakora.

Eki Alemanian sortua izanik errusiarrekiko mesfidati izateko fama daukan Merkelek oposizioan zegoela, 2003an, *The Washington Post*-en idatzi gogor bat plazaratu zuen “*Schroeder Doesn’t Speak for All Germans*” (Schroeder ez da mintzo alemaniar guztien izenean), zeinetan gogor kritikatzan zion errusiarren kontrako mehatxu militarra bazterteza: “Ekintza militarra azken aukeratzat baztertzan duena ari da ahultzen diktadoreen kontra erabili



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira